

2015eko urriaren 30a, ostirala

## BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4578

*EBAZPENA, 2015eko irailaren 28koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen akordio bat, honako lege honen arlokoa: 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordioa hartu ondoren, eta artikuluko horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen akordio bat, honako lege honen arlokoa dena: 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa (ikus eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 28a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,  
SABINO TORRE DÍEZ.

2015eko urriaren 30a, ostirala

## ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK  
OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA-BATZORDEA

AKORDIOA, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, honako lege honen arlokoa: 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak honako akordio hau hartu du:

1.– Negoziazioei ekitea, hain zuzen ere Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen inguruan sortutako desadostasunak konpontzeko.

2.– Lan-talde bat izendatzea Aldebiko Lankidetzaren Batzordeari irtenbide egokia proposatzeko.

3.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2015eko irailaren 21a.

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministroa,  
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO,

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua.  
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.